

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren V. Eranskina: «Bizikletak aparkatzeko “BIZIPARK” zerbitzurako prezio publikoa ezartzea» aldatzeko hasierako onespena (espedientea: 1391/2024/BT).

Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren V. Eranskinaren: «bizikletak aparkatzeko “BIZIPARK” zerbitzurako prezio publikoa ezartzea» aldatzeko hasierako onspena eman ondoren, 2025ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez, jendaurrean jartzeko epea ireki da, hogeita hamar (30) laneguneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edozein pertsona fisiko edo juridikok dokumentua aztertu ahal izan dezan udalaren web orrian: www.durango.eus eta udal honetako Bulego Teknikoan, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izan ditzan.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behinekoa zen erabakia (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49.c) artikulua).

Durangon, 2025eko urtarrilare 31n. — Alkatea, Mireia Elkoroiribe